

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gauegiz-Arteagako Udala****2020 ekitaldirako Udal Aurrekontuaren hasierako onarpena**

2020ko urtarrilaren 27an eginiko ohiko bilkuran, Udalbatza Osoak hasieran onetsi du 2020 ekitaldirako Udal Aurrekontua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontua arautzen duen abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko, aurrekontua jendaurrean ikusgai dago udaletxe honetako Kontu-hartzailetzan, berau aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua araberako legeztaturik dauden interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte 15 egun balioduneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Informazio-aldi hori erreklamaziorik aurkeztu gabe igarotzen bada, Udalaren aurrekontu hori behin betiko onetsizat joko da.

Gauegiz Arteagan, 2020ko urtarrilaren 27an.— Alkate-Lehendakaria, Juan Félix Naberan Ozamiz